

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****236. zenbakia****Data 2006-12-14****27509 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****DONOSTIAKO UDALA****Adineko pertsonen etxean Ikasleekin Elkarbizitza Egitarauaren Erregelamendua aldatzea.  
Behin betiko onespena.****DONOSTIAKO UDALA****Gizarte Ongizateko Administrazio Bulegoa***Behin betiko onartzea Ikasleak eta berez baliatzen diren adinekoak hauen etxeetan elkarrekin bizitzeko Programaren Udal Arautegiari eginiko Aldaketak.*

Ikusgai jarrita izan den denboran ezeren alegazio eta iradokizunik izan ez denez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua eta handik aurrerakoek jartzen dutena aintzakotzat hartu eta behin betikotzat jo da Udalbatzak 2006eko maiatzaren 30an egin zuen bileran hasi bidez onartu zuen Ikasleak eta berez baliatzen diren adinekoak hauen etxeetan elkarrekin bizitzeko Programaren Udal Arautegiari eginiko Aldaketak eta, hala, 2006ko urriaren 31ean egingandako bileran eman zaio behin betiko onartu izan horren berri Udalbatzari.

Isilbidezko onarpen hori behin betikoa da. Era berean, erabaki horrek buru eman dio administrazio bideari, eta, beraz, Euskadiko Auzitegi Nagusira jo, Administrazioarekiko Auzitarako Sailera, eta administrazioarekiko auzia jartzeko eskubidea dago, honen iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabete joan baino lehen, hala jartzen baitute 29/1998 Legearen 10 eta 46. artikuluek, Administrazioarekiko Auzibidearen Jurisdikzioa arautzeko legekoek.

Era berean, aldaketak indarrean sartuko dira Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua agintzen duenaren arabera.

Donostia, 2006ko abenduaren 5a.—Edorta Azpiazu Laboa, Gizarte Ongizateko Zuzendaria. (12484)

*Ikasleak eta berez baliatzen diren adinekoak hauen etxeetan elkarrekin bizitzeko Programaren Udal Araudiaren Aldaketak.***I. TITULUA.****DONOSTIAKO UDALERRIAN IKASLEAK ETA BEREZ BALIATZEN DIREN ADINEKOAK  
ELKARREKIN  
BIZITZEKO PROGRAMA****2. KAPITULUA. ERABILTZAILEAK***6. artikulua. Erabiltzaileak zein diren zehaztea.*

6.1. Adinekoaren betekizunak:

— «Berez baliatzen den adineko»tzat hartua izatea, organo eskudunak ezarritako balioespen eskalaren arabera.

*7. artikulua. Eskubideak.*

Apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzekoak, II. Kapituluako Lehen Atalean ezarritakoak eta elkarrekin bizi ahal izateko bi aldeek nahitaez sinatu behar duten akordioan adostuko direnak ez ezik, honako eskubide hauek izango dituzte adinekoak eta ikasleak:

*8. artikulua. Betebeharrak.*

Apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzekoak, II. Kapituluako Bigarren Atalean ezarritakoak eta elkarrekin bizi ahal izateko bi aldeek nahitaez sinatu behar duten akordioan adostuko direnak ez ezik, honako betebeharrak hauek izango dituzte adinekoak eta ikasleak:

8.1. Adineko erabiltzaileen betebeharrak:

9. Bere egoera sozio-ekonomikoa nabarmen aldatuz gero, Udaleko gizarte langileari jakinaraztea.

10. Inguruabar pertsonalak aldatuz gero, garaiz jakinaraztea udal teknikariei, baldin eta aldaketa horiek kontratuaren edozein alderdi aldatu behar izatea badakarten berekin.

11. Etxebizitza mantentzeko gastu orokorrak eta ezarritako laguntza ekonomikoa ordaintzea.

### 3. KAPITULUA. SARTZEKO PROZEDURA

#### 1. ATALA. Eskatzaile zerrendetan sartzea

##### *10. artikulua. Programaren eskatzaileen zerrendak.*

10.5. Eskatzaileen mendekotasunaren balioespena alda daiteke, organo eskudunak erabilitako eskalaren arabera, eta horrek eragin dezake pertsona hori berez baliatzen ez den pertsonatzat hartzea. Kasu horretan, Donostiako Udalak eskubidea izango du, ofizioz eta organo eskudunaren ebazpena betez, eskatzaileari eskatzaile zerrendan baja emateko. Pertsona hori, baina, berriz ere zerrendan txerta daiteke, beste balioespen baten ondorioz berriz ere berez baliatzen den pertsonatzat jotzen bada.

##### *11. artikulua. Programaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaera eta ikasleen eskaera.*

11.1. Programaren eskatzaile zerrendan sartzeko, eskatzaileak Donostiako Udaleko organo eskudunari zuzendutako eskaera inprimaki normalizatua bete eta izenpetuko du. Ondoren, eskaera hori aurkeztuko du, Udalak horretarako jarri dituen sarrera erregistroetan, estatuko administrazio nagusiko, autonomia erkidegoen administrazioko eta, horretarako hitzarmenik izanez gero, tokiko administrazioa osatzen duten erakundeetako edozein organo administratibotako erregistroetan, postetxeetan edo Espainiak atzerrian dituen ordezkarietako diplomatiko edo kontsuletxeetan.

11.2. Aldi berean, eskatzaileak oraindik mendekotasun balioespena bideratu ez badu, horretarako eskaera egingo du, inprimaki normalizatua betez eta organo eskudunari igorritik.

##### *12. artikulua. Eskatzaileek eta ikasleek eskaerarekin batera aurkeztuko duten dokumentazioa.*

12.1. Adinekoen eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

— Organo eskudunak egindako balioespena.

12.3. Ikasleen eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

— NANaren fotokopia, edo identifikatzeko balio duen edozein dokumentu baliokide.

— Matrikularen egiaztagiria ofiziala.

— Osasun txostena, ez gaixotasun infekzio-kutsakorrik ez elkarbizitza normala eragotz dezakeen nahasterik ez duela egiaztatzen duena.

12.4. Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osorik aurkeztu ez bada, edo hartan okerrak antzematen badira, eskatzaileari aginduko zaio ondorengo hamar egunean falta diren dokumentuak aurkeztu edo antzemandako okerrak konpon ditzan; orobat, horrela egin ezean, eskaera bertan behera geldituko dela jakinaraziko zaio.

12.5. Eskatzaileak baimena emango dio Udalari datuak egiaztatu edo biltzera bideratutako ekintza egokiak abian jar ditzan. Datu horiek mugatuko dira eskatzaileak araudi honetan ezarritako betebeharrak betetzen dituela frogatzera eta, behar denean, programa finantzatzeko betebeharrak eta baliabide ekonomikoak egiaztatzen.

12.6. Eskatzaileak datu faltsurik eman edo daturik ezkatzen badu, programa eskatzeko eskubidea galduko du, horretatik ondorioztatzen diren erantzukizunak gorabehera.

12.7. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 35 f) artikuluekin bat etorriz, aipatutako dokumentu horietako edozein Udalaren eskuetan badago jada, herritarrak ez du berriz aurkeztu behar izango, beti ere bost urte baino gehiago iragan ez badira dokumentua aurkeztu zuenetik. Horretarako, herritarrak jakinarazi beharko du noiz eta zer organori aurkeztu zion dokumentua.

##### *14. artikulua. Ebazpena.*

14.1. Behin eskaera aztertu eta balioetsi ondoren, proposamen-txostena organo eskudunari igorriko zaio, eta horrek ebazpen arrazoitua emango du, programan sartzeko eskaera onartu edo atzera botatzen duena.

14.2. Ebazpena gehienez bi hilabeteko epean emango da, eskaera udal erregistroetako batean sartzen denetik. Epe hori luzatu ahal izango da, eskatzaileari eskaera zuzen dezan eskatzen zaionean, jakinarazpena bidaltzen zaionetik erantzun arteko denboran, eta, erantzunik ezean, emandako epea amaitu artean. Gainera, organo eskudunari eskatzailearen autonomiaren balioespenari buruzko derrigorrezko txostena eskatu behar zaionean ere luzatuko da epea.

14.6. Ebazpena legeak agindutako epe eta betebeharrak errespetatuz jakinaraziko da, eta haren aurka, hautazko berraztertzeke helegitea jarri ahal izango da, organo eskudunaren aurrean. Nahiago izanez gero, zuzenean egin ahal izango da haren aurka, administrazioarekiko auzietako eskumenaren aurrean, legeak ezarritako epe eta baldintzetan.

## 2. ATALA. Programan sartzea onartzea

### 15. artikulua. Programan sartzea onartzea eta programa esleitzea.

15.2. Programa, organo eskudunak zerrendan sartzeko eskaera onartzen duen ebazpen berean esleituko da edo, bestela, organo horren ondorengo ebazpen batean, eskaera zehatz horri erantzuten dion ikasle interesatu bat baldin bada. Ebazpenak, esleipena arautzen duten baldintzak, lehen azaldutakoak, jasoko ditu, eta legeak exijitutako epe eta betebeharrak guztiak betez jakinarazi beharko da.

## 4. KAPITULUA. -PROGRAMAREN EGOKITZAPENA ETA SEGIMENDUA

### 17. artikulua. Egokitzeko aldia.

17.4. Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena igorriko dio organo eskudunari, eta horrek ebazpen arrazoitua emango du. Pertsona programatik irtetea erabakiz gero, alternatiba bat proposatuko da, horrelakorik bada behintzat.

## 5. KAPITULUA. -PROGRAMA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

### 18. artikulua. Programa etetea eta iraungitzea.

#### 18.2. Programa iraungitzea.

Dagokion txostena bideratuta, eta Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren proposamenari jarraiki, programako bajak erabakiko dira, organo eskudunaren ebazpenaren bidez eta interesatuari entzun ondoren. Ebazpen hori adinekoari eta ikasleari jakinaraziko zaie, legean aurreikusitako epe eta betebeharrak betez.

## 6. KAPITULUA. -PROGRAMAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

### 20. artikulua. Laguntza ekonomikoa.

20.1. Urtean behin organo eskudunaren ebazpen batek zehaztuko du zenbateko diru laguntza jasoko duen programaren onuradun den adinekoa. Irabazien eta ondarearen arabera, laguntzak, ikaslea etxean izateak sor ditzakeen lojamendu gastuak (elektrizitatea, ura, gasa eta abar) ordaintzeko kantitate bat ere eduki dezake. Diru laguntzak horrelako kantitateak jaso behar duen erabakitzerakoan araudiko II. eranskinean azaldutako irizpideak (1. puntuko a eta b epigrafeetan zehaztuta daude) erabiliko dira. Gainerako diru laguntza, adinekoak beti ere jasoko duena, ekonomi balioespenaren mendean ez dagoenez gero, ikasleari eman beharko dio adinekoak ikasketa laguntza gisara.

20.3. Adinekoa ospitaleratzen bada edo etxean ez bada, ikasleak eta, behar denean, adinekoak jaso beharreko zenbateko osoei eutsiko zaie. Nolanahi ere, etxean ez egote horrek ezin izango du hilabete baino gehiago iraun.

### Azken Xedapenetako Lehena.

Donostiako Gobernu Batzarrari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren arau guztiak eman ditzan.

## I. ERANSKINA

### SARRERA BAREMOA

#### BAREMOAREN EGITURA / ESTRUCTURA DEL BAREMO

<i>Dimentsioak</i> <i>Dimensiones</i>	<i>Puntuazio tarteak</i> <i>Intervalos de puntuación</i>
Eguneroko jarduerak egiteko laguntzaren beharra Necesidad de apoyos para la realización de las actividades de vida diaria	25
Elkarbizitza eta gizarte sostenguko egoera Situación de convivencia y apoyo social	45
Etxebizitza edo bizitokiaren egoera Situación de la vivienda o alojamiento	30
Guztira Total	100

### I. Eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza beharra.

Atal honetan balioetsiko da adinekoak zenbateko laguntza behar duen eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak eta jarduera instrumentalak egiteko, bi helburu hauekin: Bere autonomia mailari eutsi eta sustatzea eta bere ingurunean bizitzen jarrai dezan, bizi kalitate egokiarekin.

Balioespena egiteko, administrazio eskudunak ezarritako eskala erabiliko da.

### II. Elkarbizitza egoera eta laguntza soziala.

Pertsonak bere beharrak betetzeko zenbaterainoko laguntza duen jakin nahi da, aldagai hauen arabera:

— Elkarbizitza egoera: Bakarrik edo norbaitekin bizi den. Beste adineko batzuekin (senide edo lagunak) edo beste senide edo lagun batzuekin bizi den.

— Sare informala (senide eta/edo lagunak) dagoen, eta izatekotan, horretara noiz jo daitekeen, bai eta sare horrek zer laguntza mota ematen dituen ere.

### III. Egoera ekonomikoa.

Eskatzailearen per capita ondarea (ohiko etxebizitza kontuan hartu gabe) 32.995,89 euro baino gehiago bada (kopuru hori urtero eguneratuko da, Euskal Autonomia Erkidegoaren KPIren arabera) edo bere errenta Eragin Askotako Errenta Adierazle Publikoaren (EAEAP) %300 baino gehiago bada, 0 puntu emango zaio.

EAEAPren %300en azpitik, hamar tarte bereiziko dira, honi erantsitako taularen arabera puntuatuko direnak.

#### III.1. SARRERAK.

#### III.2. ONDAREA.

<i>Diru sarrerak</i>	<i>Puntuak</i>
<=% 110 EAEAP	30
>110-115	27
>115-125	24
>125-150	21
>150-175	18
>175-200	15
>200-225	12
>225-250	9
>250-275	6
>275-300	3
>% 300 EAEAP	0

## II. ERANSKINA

### ADINEKOAK ETA IKASLEAK ELKARREKIN BIZITZEKO PROGRAMAREN LAGUNTZA EKONOMIKOA

1. Udalak aldian-aldian adinekoari lojamendu gastuetarako (elektrizitatea, ura, gasa eta abar) ordaindu beharreko diru laguntzaren zenbatekoa urtero erabakiko du organo eskudunak, eta onuradunaren hileko sarrera garbiak eta ondarea kontuan izanda zehaztuko da.

a) Adinekoaren sarrerak Eragin Askotako Errenta Adierazle Publikoaren halako hiru baino gutxiago badira eta ondaretan 32.995,89 (Kopuru hori urtero eguneratuko da, EAEn KPIren arabera.) € baino gutxiago badauka (ohiko etxebizitza (Ohiko etxebizitza: Bere jabetzako etxebizitza, bere ohiko bizilekua dena.) barne ez dela), ezarritako laguntza jasoko du.

b) Adinekoaren sarrerak edo ondarea aurreko atalean adierazitakoak baino gehiago badira, ez du diru laguntza hori jasoko.

2. Adineko guztiek, beren ondare nahiz diru sarrerak gorabehera, diru laguntza bat jasoko dute, ikasleari eman beharko diotena, ikasketa laguntza moduan. Diru laguntza hori ere urtero ezarriko du organo eskudunak.